



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2019.01.22AN EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ARETXABALETA
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
OÑATI

ETORRI GABEAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
JUAN BENGOA PAGALDAY
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ANTZUOLA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2019ko urtarrilaren 22an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez onartu du 2018ko abenduaren 18an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Behin betiko hainbat berme bueltatzea

Ondoren zehazten diren behin betiko bermeak itzultzeko espedienteak ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- Ondorengo bermeak itzultzea:

1.- Enpresa: ID WASTE, S.L.

Kontratua: Poltsa konpostagarriz hornitzeko kontratua. (2015).

Zenbatekoa: **11.591 €**.

2.- Enpresa: PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A.

Kontratua: Edukiontziz hornitzeko kontratua. (2016).

Zenbatekoa: **5.250 €**.

2.- Enpresa: PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A.

Kontratua: Edukiontziz hornitzeko kontratua. (2014).

Zenbatekoa: **33.077 €**.

Une honetan Mikel Biain sartu da bilerara.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Hondakin bilketako edukiontzietan pedalak jartzeko kontratazio espedientea

Alboko kargako organikoaren eta errefusaren edukiontzietarako pedalak hornitu eta Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Elgetako eta Eskoriatzako edukiontzietan instalatzeko prozedura ireki sinplifikatu bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

Iraitzek bere baiezeko botoa argitu nahi izan du, eta esan du bere ustez hau ez dela Ingurumen Zerbitzuan gaur egun daukagun arazorik inportanteena, arazo larriagoak badauzkagula: zabor poltsak lurrean uztea, etabar.

Elenak erantzun dio horiek bi arazo desberdin direla, biak konpondu beharrekoak.

Mikelek eskatu du hondakin bilketa zerbitzuko gaur egungo kosteen konparaketa bat egitea legealdi honetako hasierako aurreikuspenekin, jakiteko ia 5. edukiontzia benetan aurrezpen bat suposatzen duen zerbitzuaren kostetan.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Turismoa

4.1.- Debagoieneko eskualdean turismo-informazio zerbitzuak eskaintzera bideratutako baliabideak hobetzeko Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzarekin lankidetzaren hitzarmena (ITOURBASK)

Debagoieneko eskualdean turismo-informazio zerbitzuak eskaintzera bideratutako baliabideak hobetzeko Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzak proposatutako lankidetzaren hitzarmena ikusirik, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzarekin proposatutako lankidetzaren hitzarmena sinatzea.



5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- URBAN INNOVATIVE ACTIONS diru-laguntza Programa Europarra

Hasteko, Lander Arregi Juntakideak URBAN INNOVATIVE ACTIONS diru-laguntza Programa Europarraren 4. deialdira aurkezteko Proiektuaren aurkezpena egin du, DATADRAGON proiektua, “*Big Data Observatory of Citizen Narratives*”.

Proiektu honen azken helburua da herritarrak aukera-hartze prozesuaren erdigunean jartzea, etorkizunarekiko erronka berriei heltzeko garapen eredu alternatibo bat sortzea (ziurgabetasuna eta konplexutasuna kudeatzeko gai dena), eta nazioarte mailan bailara posizionatzea entzute digitaleko zein berrikuntza sozialeko aitzindari bezala.

Proiektu hau lankidetzan publiko/pribatu baten bitartez garatuko litzateke, Mankomunitatea izanik proiektuaren arduradun finantzario eta juridikoa Europako Batasuneko Erakunde Mandatariaren aurrean. Mankomunitateak jasoko luke diru-laguntza, bazkide desberdinen artean banatuz.

Bestalde, bazkide egileak edo kolaboratzaileak parte hartuko lukete, proiektuaren garapenean paper aktibo batekin, diru-laguntzaren zati bat jasoz. Hauek Mankomunitatearen aurrean bere ardura osoa izango lukete. Honako hauek dira:

- HUHEZI, S.COOP.
- MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
- GIZABIDEA FUNDAZIOA
- EMUN KOOPERATIBA
- SAIOLAN, S.A.
- EUSKAMPUS FUNDAZIOA
- GOIENA KOOPERATIBA
- MIK KOOPERATIBA

Proiektu honen aurrekontua guztira 6.242.847,30 €-koa da.

Idazkariak iazko martxoan, 3. deialdia zela eta, Europar Programa honi buruz idatzitako txostena gogorarazi du.

Azkenik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Proposatutako proiektu hau URBAN INNOVATIVE ACTIONS diru-laguntza Programa Europarraren 4. deialdira aurkeztea.
2. Europak proiektu hau onartuko balu, bazkide guztien artean sinatu beharreko agirian jaso beharreko baldintzak zehaztu ondoren, erabakiko luke Mankomunitateak proiektua garatu edo ez.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

5.2.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

18/87.- 1.- Edukiontzia eramateko ibilgailu batez hornitzeko kontratua BILBOTRUCK, S.L. enpresari esleitzea 74.815,30 €-ko prezioan, gehi 15.711,21 €, BEZaren %21ari dagokiona.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Maddi Altuna Odriozola, Ingurumen Zerbitzuko behin behineko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

18/88.- O.I.A. eta A.E.E. bitarteko funtzionarioen izendapenak luzatzea informatzaile-teknikari bi lanpostu hauek betetzeko dagokion hautaketa prozesua bukatu eta behin betiko bete arte.

18/89.- 18/37 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA BERROGEITA BOST MILA ETA LAUROGEI EURO ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (445.080,57 €).

18/90.- O.G.I. ingurumen-teknikaria berriro bitarteko funtzionario izendatzea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, Mikel Jaio teknikariaren ordezkapena egiteko, bere gaixotasunagatiko bajaldia bukatu arte. Hileko 2.780,93 €ko ordainsari gordina emango zaie, honela banatuta:

- Soldata: 954,54 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 463,20 €. (20)
- Berriazko osagarria: 1.363,19 €.

19/01.- 18/38 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA HIRUROGEITA BOST MILA SEIEHUN ETA HAMAR EURO ETA BERROGEITA ZORTZI ZENTIMO (265.610,48 €).

19/02.- - I.Z.M. izendatzea bitarteko funtzionario, 2019ko urtarrilaren 16tik aurrera, aipatu turismo teknikariaren ordezkapena egiteko, bere amatasun baimena bukatu arte. Hileko 2.676,17 €ko ordainsari gordina emango zaie, honela banatuta:

- Soldata: 954,54 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 408,30 €. (18)
- Berriazko osagarria: 1.313,33 €.

19/03.- LEHENENGO.- QUIRÓN PREVENCIÓN, S.L.U. enpresari esleitzea, "Foru Kontratazioen Zentralaren bidez lan arriskuen prebentzio zerbitzuaren 5. lotea (osasun zaintza zerbitzua) kontratatze esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

BIGARREN.- Kontratu honi dagokion gastua onartzea, ondorengo kontusailen kargura: 1000.227.920.00.07, gehienez ere 4.200 €-takoa delarik.

6.- GALDE-ERREGUAK

- Pertsona Fisikoen Datuei buruzko Europar Batasuneko Erregelamendua ezartzeko eta Segurtasun-Eskema Nazionala egokitzeko NEXTEL, S.A. enpresari esleitutako kontratu txikiari buruz euskara teknikariak egindako txostenaren berri eman da. Langile eta ordezkari politikoekin harremana izango duten langile elebidunak eta Datu Babeserako Delegatu elebiduna izendatu arte NEXTEL enpresaren lana eten egingo da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:00etan, bukatutzat eman da bilkura.